

FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresa bakoitza funtsezko jarduera batzuk ditu. Funtsezko jarduera hauen barruan hiru jarduera mota daude. Lehen, produkziozko jarduerak dira, honek produktuaren diseinua, ekoizpena eta entregaosatzen dute. Bigarrena arazo-konponketako jarduerak dira eta azkenik, plataformako edo sareko jarduerak.

Oso garrantzitsua da enpresaren zereginak identifikatzea, horretarako, funtsezko jarduerari begira, gure produktuak, hainbat elementu desberdinez eginda dago, elementu horiek kanpoko enpresetik eskuaratzen ditugu, beraz kanpoko enpresen esku dago (dinamoa, bizikleta, bateria). Dena den gure enpresaren produkzio jarduerara begira, hori guztia batzeaz eta montatzeaz arduratzen da.



Beste aldetik gure salmenta online denez, gure bezeroen banaketaz arduratzen gara baina horretarako kanpoko enpresa baten esku utziko dugu, espezifikoki garraio enpresa bati (UPS, Fed Ex). Baina kostua hain altua ez izateko garraio enpresarekin akordio batera ailegatu behar dugu. Prezioa murriztua uztearen truke, bere enpresa soilik erabiliko dugu produktua gure bezeroei helarazteko.

Diseinuaren aldetik (bateriaren kokapena, espezifikazioak...) gure enpresa zuzenean arduratuko da, gure langile plantilan hainbat diseadore eta tekniko egongo dira guzti hau aurrera eramateko.



Oso garrantzitsua da gure enpresak honetaz arduratzea, honekin lortzen dugu gure benetako diseinua izatea gure produktuak.

Bigarrena, arazo-konponketa jarduerak dira, aurretik azaldu dugun bezala, hainbat bizikleta dendeekin kontaktuan egongo gara, arazo bat izanez gero askoz



azkarrago konponduko da bide honetatik. Dena den bizikleta denda horrek ez du konponketaren ardura osoa hartuko, gure enpresak behar diren pieza guztiak proportzionatuko du. Arazo larria izanez gero bizikleta tailerrera eramango dugu, bilketa eta entrega garraioa gure kontura izango da, horretarako bezeroek bizikleta erosten dutenean asegurua dute, hori dela eta bezeroari ahalik eta gehien asetzeaz arduratzen gara. Beraz jarduera honetatik ez dago guztiz beste enpresa edo frankiziaren esku.

Azkenik, sareko jarduerak gure enpresaren esku daude, organigraman azaldu dugun bezala, sare sozialeko arduradun bat egongo da. Honek marketing inguruko gauza guztiak antolatuko du (teknologiak kudeatzea mantentzea eta sustatzea), zehazki sare sozialak eta webgunea. Bezeroengana iristeko gure modua sare sozialetan eta hauen erabilera onean oinarritzen da. Beraz gure helburuak bezeroei eta salmetei begira guk kudeatzeko ezinbestekoa da jarduera mota hau gure esku egotea.

